

2010

INGURUMENA EUSKADIN



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA


DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



Lurrazaleko urak

Euskadiko lurrazaleko uren egoera orokorraren bilakaera positiboa.

EGOERA OROKOR ONA DUTEN LURRAZALEKO UR-MASAK



Lurpeko urak

EGOERA ONEKO LURPEKO URAK, 2017AN

Egoera kuantitatibo ona

% 92
(33 masa)

Egoera kimiko ona


% 92
(33 masa)

* Balio konstanteak 2012tik




Bainu-urak

Euskadiko bainu-eremuen % 85en ur-kalitatea bikaina da. Halaber, kalitate nahikoa edo gutxiegi duten bainu-eremuak 2000ko % 47tik 2017ko % 2ra gutxitu ziren.




Bilakaera

2012



2017




■ Ona ■ Ona baino okerragoa ■ Aztertu gabe




AIREA

Euskadin, atmosferaren kutsatzaile nagusien isuriak nabarmen gutxitu dira 1990ko balioekin alderatuta. 2,5 mikratik beherako partikula kopuruak 1990ko maila gainditzen duen arren, 2006ko maximo historikotik gutxitzen ari da etengabe.





AIREAREN KALITATEA EUSKADIN (2016)

Euskadiko airearen kalitatea nabarmenki hobetu da 2005-2016 aldian: 2005ean aire-kalitate oneko urteko egunak % 50 ziren, eta 2016an aire-kalitate oneko eta oso oneko egunak % 82 izan ziren. Aire-kalitate txarreko eta oso txarreko egunak % 1era gutxitu dira.



BIODIBERTSITATEA

Euskadik Natura 2000 Sarearen babespeko 55 gune ditu, guztira 1.680 km², hau da, Euskadiren azalera osoaren % 23,3.



% 23




% 18


Natura 2000 Sareko lurren %

LURZORUAK

2018an ikertutako kutsatuta izan daitezkeen kokalekuen kopurua historiako handiena izan zen: 285 lurzati.



2018an leheneratutako kutsatutako 87 lekuak aintzat hartuz, guztira 1.031 leku leheneratu dira 2000. urtean erregistratzen hasi zirenetik. Horrenbestez, leheneratutako azalera metatua 1.157 hektarearen baliokide da.




HONDAKINAK




Banatztea

Euskadin hondakinen sorrera eta BPGd erabat banatu izanaren ondorioz –jarduera ekonomikoaren ekoefizientzia handiagoaren zantzua da–, BPGd unitateko sortutako hondakinak gutxitu dira: 67 kg hondakin BPGd-ren mila euroko (2016).



Birziklatzea

2003-2016 aldian, Euskadin hondakinak birziklatzeko tasa (hondakin mineral nagusiak kanpo) egonkor gelditu zen, % 50 inguruan. 2008. urtean, birziklatze-tasa % 58koa izan zen, eta urte horretan birsartu ziren hondakin portzentaje handiena ekonomian. Aitzitik, 2009 eta 2011 bitartean, Euskadi jo zuen finantza-krisiaren hasierarekin bat etorri, hondakinen birziklatze-tasa % 47ra txikitu zen.



KLIMA-ALDAKETA

1. helburua (arintzea)


Euskadiko berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030erako eta, 2050erako, gutxienez % 80, 2005eko datuekin alderatuta.

2050. urtean lortzea energia berriztagarrien % 40ko kontsumoa azken kontsumoarekiko.



2. helburua (egokitzea)

Klima-aldaketaren aurrean euskal lurraldeak erresilientzia duela ziurtatzea.

Berotegi-efektuko gasen gutzitako isurien eta isuri lausoen gutxitzea



BEG ISURIAK 2005-2017 BILAKAERA



Sektorekako isuriak


2017an, garraioa izan zen Euskadin 2005eko isurketekin alderatuta igoera izan zuen sektore bakarra (% 15 gehitu ziren). Urte horretan, garraioak eta industriak 12,9 milioi tona CO₂ baliokide isuri zituzten, hau da Euskadiko BEG isurketa guztien % 64 baino gehiago. Gainerako sektoreen isurketak gutxitu egin dira.



Energia berriztagarriak


Energia berriztagarren aprobetxamendua 2017an 22.422 TJ-koa izan da, hau da, berriztagarren kuota energiaren azken kontsumoaren gainean % 13,3koa da.

BILAKAERA



	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Euskadi	12,9	11,4	13,0	13,9	13,3	14,3	13,4
Espainia	13,2	14,3	15,3	16,1	16,2	17,4	17,5
EB (28)	13,2	14,4	15,2	16,1	16,7	17,0	17,5

ALDERAKETA-EB, 2017




BPGd-ren eta isurien arteko banaketa



1995 eta 2017 artean, Euskadiko BPGd % 70 handitu da (42.910 milioi eurotatik 72.743 milioi eurotara), eta berotegi-efektuko gasen isurketak % 12 gutxitu dira (22.863.052 tona CO₂ baliokide 1995ean eta 20.046.519, 2017an).

Horren ondorioz, 1995 eta 2017 artean, berotegi-efektuko gasen guztizko isurketen eta BPGd arteko ratioa % 48 txikitu da.

BPGd ETA BEG ISURIAK BANATZEA




1995-2017 BILAKAERA



BALIABIDE MATERIALAK

Euskadiko Ekonomia Zirkularren 2030rako Estrategia ekonomia lehiakorra, berritzailea, karbono urrikoa eta baliabideen erabilerari dagokionez efizientea lortzeko ibilbide-orria izango da.



1. erronka
Produktibitate materiala
% 30 areagotzea

Zirkularragoak izango diren negozio-eredu berrien sorkuntza sustatzea

2. erronka
Material zirkularren erabilera-tasa
% 30 igotzea


Berrikuntza txertatzea material, prozesu eta produktuetan

3. erronka
BPGd unitate bakoitzeko sortutako hondakinen tasa
% 30 murriztea

- Alferrik botatako janaria erdira murriztea
- Plastikozko ontzien % 100 birziklagarria izan dadin lortzea

EKONOMIA ZIRKULARRA


2000-2016 aldian, materialen bertako kontsumoa % 36 txikitu da Euskadin.




Produktibitate materiala lurralde baten barne-produktu gordina, moneta-unitateetan, eta materialen bertako kontsumoa, termino fisikoetan, lotzen dituen adierazlea da. Sistema ekonomikoak gero eta materialen mendekotasun txikiagoko ekoizpen- eta kontsumo-ereduranzko duen joera ebaluatzen balio du.

Euskadiko produktibitate materialaren beste hazkunde horrek, 2016an 3,32 €/kg-koak (bolumen kateatuko BPGd), hirugarren sektoreak Euskadiko ekonomian duen nagusitasuna erakusten du, baita materialekiko independentzia gero eta handiagoa.

Ekonomia desmaterializatzea




Euskadiko sistema ekonomikoak materialekiko mendekotasun gero eta txikiagoa dauka; beraz, inportazioak gutxitzeaz gain, baliabide naturalen ustiapena ere txikitu da.



2016


Biztanle bakoitzeko tonak




EKONOMIA ETA INGURUMENA

Ekonomia eta ingurumena banatzea

Euskadik banaketa nabarmena egin du BPGd-ren eta ingurumen-adierazle nagusien artean: 2000-2016 aldian BPGd % 30 handitu zen, eta zenbait ingurumen-aldagai, esaterako PM10 isuriak edo hiri-hondakinen zabortegiko isuriak, % 37 eta % 53 gutxitu ziren hurrenez hurren.




2010-2016 BILAKAERA



Gastu publikoa ingurumen-arloan


Euskadik banaketa nabarmena egin du BPGd-ren eta ingurumen-adierazle nagusien artean: 2000-2016 aldian BPGd % 30 handitu zen, eta zenbait ingurumen-aldagai, esaterako PM10 isuriak edo hiri-hondakinen zabortegiko isuriak, % 37 eta % 53 gutxitu ziren hurrenez hurren.




Erosketa Publiko Berdea (EPB)

2018an, euskal administrazioek EPB irizpideen arabera 931 lizitazio egin zituzten; hots, 356 milioi euro.

- Eusko Jaurlaritza eta mendeko erakundeak
- Foru-aldundiak
- Tokiko erakundeak
- Bestelako erakundeak




931
EPBko lizitazio



356 M€
EPBko lizitazioetan

Ingurumenarekin lotutako zergak

Euskadin 2017an ingurumen-zergen bitartez bildutako 1.199 milioi euroak 2018an Euskadin izan ziren EPBko zerga guztien % 7,8 dira eta BPGd-ren % 1,6.



INGURUMEN-ZERGA, BPGd-RI DAGOKIONEZ



% 1,6




% 2,4

HERRITARRAK ETA INGURUMENA

2018an, 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia argitaratu zen, euskal gizarte justuagoa eta jasangarriagoa lortzeko hezkuntza benetan eraldatzailea garatzeko zimenduak jartzen dituena.

1. helburua
Ekintzarako hezkuntza
2. helburua
Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea
3. helburua
Gazteak trebatzea eta ahalduntzea
4. helburua
Herriak eta hiriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaileekin sustatzea


BADAUKA INGURUMENAREN BABESAK EUSKADIN HAZKUNDE EKONOMIKOA INDARTZEKO GAITASUNIK?



JASANGARRITASUNA

Euskadiko herritarren % 100en ustez, ingurumena babestea oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua da, eta % 82 ados edo erabat ados dago adierazpen honekin: ingurumenaren babesa gai da Euskadin hazkunde ekonomikoa indartzeko.

ZER GARRANTZI DU INGURUMENAREN BABESAK?



* Eurobarometer 416 berezia, 2014ko apirila-maiatza. Europako Batzordea.

HEZKUNTZA

Euskadin, Eskolako Agenda 21i atxikitako ikastetxeen kopurua nabarmen handitu da 2003-2004 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera: 27tik 450era.

ESKOLAKO AGENDA 21 ESKOLAKO AGENDA 2030



450
ikastetxek
parte hartu dute



228.684
ikasle baino
gehiago



94
zentro:
ikastetxe
jasangarri



ekoetxea

Euskadiko Ingurumen zentrozen sarea
Red de Centros Ambientales de Euskadi

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Ekoetxea ingurumen-zentrozen sarearen helburua herritarrak biodibertsitatea eta ingurumena babestearen onurei buruz sentsibilizatzea da. Sarea lau zentrok osatzen dute: Azpeitikoa, Txingudikoa, Urdaibai Biosfera Erreserbakoa eta Meatzaldea-Peñas Negrasekoa.



120.000
bisitari urtean
Ekoetxea sarean



12.000
eskola-ume


TOKIKO INGURUMENA

Euskadin tokiko ekintza-planak Tokiko Agenda 2030 deritzonaren ardatz egituratzaileak dira. Agenda funtsezko tresna da NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuetako printzipioak indartzeko.

UDALSAREA 2030, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea

Udalsarea 2030 186 euskal udalerri osatuta dago, hau da, Euskadiko 251 udalerrien % 73rekin. Euskadiko herritarren % 98 hartzen du.

udalsarea 2030
udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles




Udalsarea 2030eko kideak

186 euskal udalerrri
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritza
Uraren Euskal Agentzia (URA)
Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
Arabako Foru Aldundia
Bizkaiko Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Presidentetza: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza
Idazkaritza Teknikoa: Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Udalsarea 2030eko Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) egiten dien ekarpena

Udalsarea 2030eko udalerriek GJHei egiten dieten ekarpenari dagokionez, planetari lotutako atalean 10etik 7,2koa da batez beste; pertsonari lotutakoan, 5,7koa eta, oparotasunari lotutakoan, 5,3koa. Bakeari eta lankidetzari buruzko GJHetan, ez da 5a gainditzen.

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN 5 ARDATZAK



5 ARDATZEN BATEZBESTEKOA

7,2 Planeta 5,7 Pertsonak 5,3 Oparotasuna 3,3 Bakea 1,7 Lankidetzara

PERTSONAK



PLANETA



BAKEA



OPAROTASUNA



LANKIDETZARA



EUSKADI ZIFRATAN

Biztanleria
2.180.449



Giza
garapenaren
indizea
0,922

Munduko 189
herrialdeen
sailkapenaren
13. eta 14.
postuen artean
dago Euskadi

Azalera
7.234 km²



83 URTEKO
bizi-itxaropena

Biztanle
bakoitzeko BPGd

34.079 €
% 21 ↑ EBko
batezbestekoa
% 24,1 ↑ Espainiako
batezbestekoa



URTEAN **34.200** EUROKO
batez besteko gastua etxeko



9,6
langabezia-tasa



% 71,8
okupazio-tasa

7,5 puntu 10etik

Euskadiko herritarrek beren bizitzaren
gainean duten poztasun-maila